

FRANCK DOLOSOR *HALTZA*



Gernika Batailoia

Askatasunaren ametsa



Gernika Batailoia

Askatasunaren ametsa

Franck Dolosor *Haltza*

Saio eta Testigantza, 272

978-84-9172-420-9

2025 - 152 or. - 17 x 24 cm

22,00 €

Gernika ez da bakarrik bonbardaketa, Picassoren margoa edo izen hori zeukan informazio sarea. Munduko Bigarren Gerla hastear zegoela, naziak Euskadiren askatasunaren sinboloa suntsitu nahi izan zuten. Entsegu orokor odoltsuan Bizkaiko herria Europa osoko lehen biktima izan zen. Dolua dolu, oraindik zutik ziren euskaldunek ez zuten sekula duintasuna galdu. Zortzi urte geroago, Reich-a erorarazteko amerikarrek eta errusiarrek Berlin inguratzen zutela, okupatzaile naziengandik Frantzia osoki askatzen laguntzen agertu zen Gernika: Gernika Batailoia hain zuzen, Agirre lehendakariaren ametsa. Euskal Herria bezala, euskal brigada ere zutik zegoen. Ezinbestean, 1937ko apirilaren 26an lehen biktima izan zenak azken gatazketan esku hartu behar zuen 1945eko apirilean Frantzian, Euskaditik urrun izan arren.

1944ko uda bukaeran Bordele aske zegoen, baina Pointe de Grave lurmuturrean gotortuta zeuden Alemaniako lau mila soldaduk portuko sarrera blokatzen zuten oraindik. Gernika Batailoia azken okupatzaile horien aurka borrokatu zen. Gatazka horretan bost gudari hil eta hogeitatu zauritu ziren.

Gernika ez da bakarrik euskaldunek jasan zuten bonbardaketa. Askatasunaren alde borrokatzeko prest zen gudari taldea ere bada Gernika. Gernika Batailoia, askatasunaren ametsa!



FRANCK DOLOSOR *HALTZA* (1977) kazetaria da 1996az geroz. Mende laurden batez, senperrak lan egin izan du euskaraz, espainolez eta frantsesez Gure Irratia, Radio Euskadi, Euskal Telebista, Deia egunkaria eta Urdin Euskal Herria-Radio France Bleu Pays Basque irratan.

Hiru hizkuntza horiez gain, ingelesez moldatzen da, eta katalana eta gaskoiera ongi ezagutzen ditu ere. 2017an Baiona eta Aturri aldeko Gaskoi Akademiako kide izendatu zuten. Bere inguruan gertatzen dena ulertzea eta azaltzea gustatzen zaio, baina oroz gainetik, jendeek berek zer sentitzen duten erakutsi nahi du, bere ustez, ez baita jendeekin mintzatzea bezalakorik.

2009an, *Senperetik Senpererat, begirada bat hogoigarren mendeari* lehen liburua plazaratu zuen, bere herriko bederatzi emazte eta bertze hainbertze gizoni hitza emanez. Ondoko urteetan, *Matxin Irabola Senpereko bertsularia* biografia argitaratu zuen.

Baionaldeko gaskoiei buruzko erreportai luzea egin du ETBn. Estibaliz Robles Arangiz *Estitxu* kantariari buruzko film dokumentala aurkeztu zuen 2017an Baleuko ekoiztetxearen laguntzarekin.

Bi urte lehenago, Iban Gonzalez erretratzaileak zuzendutako Gernika Batailoari buruzko dokumentalaren gidoilaria izan zen. Film horretako mami nagusia, eta bertan azaldu ez ziren zenbait lekukotasun, xehetasun eta argazki bildu ditu eskuetan duzun liburu honetan.

franckdolosor.com - @FranckDolosor - @franck_dolosor



948 326 535 • www.pamiela.com • admin@pamiela.com